



EFEO-REN URTEKO I. SARIETARAKO OINARRI OROKORRAK

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak EFEOren Urteko I. Sarietarako deialdia egin du, Euskal Autonomia Erkidegoan osasuneko diziplina horren aurrerapenean lan egiten duten profesionalen lana aitortzeko.

SARIEN OINARRIAK

1. Espainiako fisioterapeuten edozein elkargo ofizialetan izena emanda duten fisioterapeuta elkargokide guztiak har dezakete parte, baldin eta elkargoarekin dituzten betebeharrak egunean badituzte eta dagokion elkargo ofizialak ezarritako zehapenik indarrean ez badute.

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Batzarreko kideek eta saria emateko epaimahaia osatzen duten fisioterapeuta profesionalek ezingo dute saria jaso.

2. Parte-hartzea banakako titulaziokoa edo kolektiboa izan daiteke.
3. Sarien helburua da Fisioterapeutaren edozein jarduketa-eremuan aurrerapena sustatzen duten lanen bidez bultzatutako ekimenak suspertzea, banakakoak zein kolektiboak.

Sariak 4 kategoria dituzte:

- Urteko fisioterapeuta
- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamenik onena
- Gradu Amaierako Lan (GrAL) onenari saria
- FISIOLAGUN saria

4. Sarien zenbatekoa horrela banatuko da:

- Urteko fisioterapeuta: 300 eurotan baloratutako prestakuntza-beka, garaikurra eta aitorten-diploma.
- Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamenik onena: Garaikurra eta aitorten-diploma.
- GrAL onenari saria: 300 eurotan baloratutako prestakuntza-beka, garaikurra eta aitorten-diploma.
- FISIOLAGUN saria: Garaikurra eta aitorten-diploma.

Sariaren titularra izango da, eta, hortaz, prestakuntza-bekaren hartzaila izango da aurkeztutako lanean sinatzaile bakarra edo lehen sinatzaile gisa agertzen den pertsona. Irabazlea taldekako GrALa bada, taldeko kide guzti-guztiak aitorten-diploma jasoko dute, egilekide gisa.



EFEO-REN URTEKO

I. SARIETARAKO OINARRI OROKORRAK

Zenbateko horiek indarreko lege-erregelamenduen mende daude; zerga-izaerakoak barne.

5. Egile bakoitzak lan bakarra aurkez dezake sari bakoitzerako.
6. GrAL kategoriako lan guztiek originalak eta argitaragabeak izan behar dute, 10etik 8 edo gehiagoko nota eskuratu akademikoki, eta honako eskakizun hauek beteko dituzte:
 - Fisioterapiaren edozein arlori buruzkoak izan daitezke, eta gaurkotasuna lehenetsiko da, hau da, egungo gizarteak dituen beharrei erantzutea.
 - Gaztelaniaz edo euskaraz idatzita egon daitezke.
 - Lanak deialdiaren ikasturtean edo aurrekoan zehar eginak izan behar dira.
 - Ez dira onartuko beste deialdi edo sarietan dagoeneko sarituak izan diren GrALak.
 - Aurkezteko, gutun itxi batean bidaliko dira, eta bertan agertuko dira egilearen/egileen datuak (izen-abizenak, egungo helbide osoa, zentroa eta lanpostua, harremanetarako telefono(ak), GrALaren 8 edo gehiagoko kalifikazio akademikoa eta elkargokide izatearen egiaztatzea).
 - Derrigorrez, 3 kopia bidali beharko dira –behar bezala koadernatuak, beharrezkoa bada– Din-A4 tamainako paperean. Era berean, euskarri informatikoa ere bidaliko da (pendrive, CD Rom, etab.) artxiboaren izena eta erabilitako programa(k) zehaztuz.
 - Lerrotarte bikoitzarekin eta orrialde bakarrean idatziko dira, eta gehienez 50 orrikoak izango dira (Din A4), letra-tamaina 11 puntukoa izango da, Arial letra-tipoarekin. Saihestuko da koskak, letra-tamaina eta -tipoak, azpimarratuak, hutsuneak etab. gehiegi erabiltzea, eta grafiko eta tauletarako arau berdinarak aplikatuko dira.
 - Lanak ordena honetan egon daitezke egituratuta:
 - Laburpena eta hitz gakoak.
 - Sarrera.
 - Materiala eta metodoak.
 - Emaizak.
 - Eztabaida.
 - Ondorioak.
 - Erreferentzia bibliografikoak.
 - Ahal bada, erreferentzia bibliografikoak zenbakien bidez zerrendatuko dira, testuan lehen aldiz aipatzen diren ordena berean, parentesi artean jarritako zenbaki arabiarren bidez identifikatuta. Ahal den heinean, saihestuko da erreferentzia pertsonalak edo argitaratuta ez dauden bestelako oharrak erabiltzea. Erreferentzia horiek erabilitako ordenan aipatuko dira (azken atalean), Index Medicus argitalpenean erabilitako laburpen-sistema erabiliz.



EFEO-REN URTEKO I. SARIETARAKO OINARRI OROKORRAK

7. Urteko fisioterapeuta, Fisioterapiari buruzko komunikazio-proposamenik onena eta FISIOLAGUN saria:

2024. urtean fisioterapiaren barruan erreferentzia edo eredu izan diren fisioterapeutak proposatu nahi badituzu, aurkezpena horrela egin beharko duzu:

- Proposatutako pertsonaren izen-abizenak adierazi.
- Proposatutako pertsonaren enpresaren izena.
- 2024an izandako meritu eta balio nabarmenen azalpena.
- Curriculum vitae.
- Oharra: Eskatutako dokumentazioa erantsita ez duten proposamenak ez dira ontzat hartuko.

Fisioterapiari 2024an erreferentzia izan den komunikazio bat proposatu nahi baduzu (kazetaritza-artikulua, irratirerreportajea, telebistarerreportajea edo sentsibilizazio-kanpaina, komunikazioa edo kontzientziakzioa), ondoren adierazten den moduan bidali beharko duzu:

- Egileen izen-abizenak adierazi.
- Argitaratu duen komunikabidearen izena adierazi, edo, hala badagokio, komunikazio-kanpaina sustatu duen erakundearena.
- Komunikazioa, formatu digitalean.
- Oharra: Eskatutako dokumentazioa erantsita ez duten proposamenak ez dira ontzat hartuko.

Fisioterapiaren irudia, zerbitzuak eta kalitatea sustatu, eta, ondorioz, diziplinaren garapenari lagundu dioten pertsona, erakunde, enpresa eta antolakundeak FISIOLAGUN kategorian proposatu nahi badituzu. Fisioterapiaren bidez Osasuna sustatzeko eta hedapen-estrategiak hobetzeko estrategiak aitortu nahi dira arlo guztietan.

- Adierazi enpresaren, pertsonaren edo erakundearen izena.
- Enpresaren, pertsonaren edo erakundearen jardura.
- Azpimarratu nahi diren merezimendu eta balioen argudioak.
- Oharra: Eskatutako dokumentazioa erantsita ez duten proposamenak ez dira ontzat hartuko.

8. Lanak eta proposamenak aurkezteko epea 2024ko urriaren 4an amaituko da. Epearen barnean posta-egiaztagiria duten lanak onartuko dira.



EFEO-REN URTEKO I. SARIETARAKO OINARRI OROKORRAK

9. Lanak eta proposamenak aurrez aurre emango dira Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoaren Idazkaritzan, edo, bestela, hartu-agiriarekin bidaliko dira posta egiaztatuaren bidez, helbide honetara:

Ibarrekolanda kalea 15 - 48014 Bilbo

En Kanpoko gutun-azalean hau adierazi behar da: "I PREMIOS ANUALES COFPV"

Parte-hartzeko modalitatea adierazita

10. Epaimahaiak 2024ko URRIAREN 31n emango du emaitza, eta 2024ko azaroaren 8ko EFEOko Urteko Ospakizunean adieraziko da (data hori epaimahaiko kideen beharren arabera alda daiteke).

Irabazleei aldez aurretik jakinaraziko zaie, lanarekin batera erantsitako gutun-azal itxiko zerrendan agertzen den egileari edo lehen egileari berariazko eskutitza bidaliz, baita Elkarberri aldizkariaren bidez ere.

EFEOk eskubidea izango du beste baliabideren baten bidez banatutako sarien berri emateko.

11. Epaimahaia EFEOk izendatuko du, eta 3 eta 7 kide artean osatuko dute. Kide horiek Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko hezkuntza-, laguntza- eta ikerketa-arlokoak izango dira, baldin eta ez badira GrALaren egileak edo laguntzaileak.
12. Epaimahaiaren emaitza ezingo da apelatu edo atzera bota, eta saria osorik edo zati batean hutsik utzi ahal izango da, haien ustez aurkeztutako lanek ez badute gutxieneko kalitate zientifikoa betetzen. Epaimahaiko kide guztiek bozkatzeko eskubidea izango dute. Erabakiak epaimahaiko kideen gehiengo soilarekin hartuko dira. Berdinketa badago, presidentearen botoarekin erabakiko da.

Deliberazioak sekretuak izango dira.

13. EFEOk saritutako lanak aldizkarian argitaratzeko (osorik edo zati bat) eskubidea izango du, baita lehiaketara aurkeztutako eta argitaratzeko baldintzak betetzen dituzten lanak ere. Horretarako, jatorrizko egilea aipatuko da, eta, aldaketarik egin behar izatekotan, aldez aurretik jakinaraziko zaie egileei.



EFEO-REN URTEKO

I. SARIETARAKO OINARRI OROKORRAK

14. Halaber, EFEOk eskubidea izango du jasotako lan guztiak erabiltzeko elkargoaren xedeetarako, eta, ondorioz, interesekoak izan daitezkeen lanen kopiak egin eta edozein bitartekoren bidez hedatu ahalko du.

Sarietan parte hartzeko xedez jasotako datu pertsonal guztiak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLO-EDG) eta hura garatzen duten araudiaren arabera tratatuko dira Datuen tratamenduaren ardura EFEOrena izango da.

15. Saritu ez dituzten lanak jasotzeko, eskaera idatziz egin beharko da aldez aurretik, eta emaitza ematen den biharamunetik zenbatzen hasita 60 egun egongo dira horiek jasotzeko. Epea amaitzean, EFEOk ale bat gordeko du, eta gainerako kopiak banatu.
16. Sarian parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar.